



6/2019 TXOSTENA, APIRILAREN 5EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURAKOA

XEDEA: GAZTERIAREN EAE-KO LEGEAREN AURREPROIEKTUA

I.- AURREKARIAK.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.39 artikuluan ezartzen da Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiola gazteei buruzko politikaren eskumen eskusiboa.

Bestalde, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako foruzko jardute-erakundeen arteko harremanei buruzko 27/1983 Legeak

xedatzen du autonomia-erkidegoko erakunde komunei dagokiela legegintza, bai eta gazteei buruzko politika-arloko jardun zuzena ere.

Udal-eremuari dagokionez, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 17.36 artikuluan ezartzen du gazte-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea udalerrien eskumen propioa dela.

Gauzak horrela, Gazte Politika, arauaren ikuspegitik, ibilbide luzea duen sektore bat da, baina sektore desegituratua eta zatikatua da, eta lege-lerruna baino lerrun txikiagoko arau-aniztasun handia duena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusiboa izan arren, Gazte Politikak ez dauka politika osoa edo atal desberdinak hartzen dituen lege-lerruna duen erregulaziorik, gazteen partaidetza soilik hartzen baitu; horrek, beste ondorio batzuen artean, zaildu egiten du erakundearteko koordinazioa, eta koordinazio hori erabakigarria da edozein politika publiko sektorialetan aldaketa garrantzitsuak egiteko. Politika horrek zeharkako lerrunak izango ditu, hemen aztertzen ari garen politikak dituen bezala.



Gazteriaren EAeko Legea egiteko premiaren eta aukeraren justifikazio hori, azken hamarkada hauetan erabilitako aukeren eta alternatiben arabera, ez da zerbait berria, aurretik egin baitira Gazteriaren EAeko Legearen bi proiektu VIII. eta IX. Legealdietan, baina proiektu horiek ez zuten legebiltzarraren izapidea gainditu.

Gauzak horrela, Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren Gazteria Zuzendaritzaren ekimenez, hainbat txostenen eta alegazioen xede izan den Lege hau izapidetu da, eta aipatutako Gazteria Zuzendaritzak txostena eskatu dio Batzorde honi. Txosten hori ondoren adieraziko denaren arabera gauzatu da.

II. – ALDEZ AURREKO GOGOETAK.

TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.

Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 11. artikuluan xedatzen du nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak izapide hori arautzen duten xedapenek ezarritako unean eta eran eskatuko direla.

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako arauaren proiektuari buruzko txostena egiteko; izan ere, horrek eragina du kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 1. zenbakian xedatutakoari jarraikiz:

«27. artikulua.– Aholkularitza-eginkizunak.

Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Hauei buruz nahitaez informatzea:

1.– Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak».



Xedapen-proiektua denez eta ez denez horren xedea sektore publikoko erakundeak sortzea edota Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko erakundeen egitura organiko eta funtzionalak arautzea, 116/2016 Dekretuaren 30. artikuluekin bat, txostena onartzeko eskumena Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokio.

III. – EDUKIA.

Lege Aurreproiektuaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan gazteria-arloko politika garatzeko arau- eta eskumen-esparrua ezartzea, eta honako atal hauek ditu:

- Azalpen-zatia.
- Xedapen-zatia, 58. artikulua dituen, honela egituratuta: Atariko titulu bat eta bost titulu.
- Amaierako zatia, hiru xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor eta bi azken xedapen dituen.

Labur esanda, Legea zatituta dagoen tituluen edukia hau da:

- Atariko titulua: Helburua, definizioak, eremua eta printzipioak.
- I. Euskal Administrazio Publikoen eskumenak eta eginkizunak
- II. Gazte Politika garatzeko tresnak eta neurriak
- III. Gazteen partaidetza eta gizarte-ekimena
- IV. Administrazio-antolaketa
- V. Ikuskapena eta zehapen-araubidea

IV.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Kontratazio publikoari buruzko zuzeneko aipamenak urriak dira, ez, ordea, zeharkako aipamenak edo zalantzak sortzen dituztenak; izan ere, ondoren ikusiko dugunez, gazteen ekipamenduei eta zerbitzuei buruz egiten diren aipamen ugarietan ez da adierazten ekipamendu eta zerbitzu horiek kanpoan kontratatzea aurreikusten ote den, baina kanpoan kontrata daitezke, ekipamendu eta zerbitzu horien «titulartasun publikoa nahiz pribatua» aipatzen baita (ikus 11. artikulua 2. apartatua).



Garrantzitsua da aurreproiektuak berak Gazteriaren EAEko Sistemari buruz egiten duen definizioa txostenaren puntu honetara ekartzea (10. artikulua):

«Gazteriaren EAEko Sistema erantzukizun publikoko eta gizarte-partaidetzako jarduketa eta egituren multzo artikulatu eta egonkorra da, zeharkako esku-hartzeek eta berariaz gazteei zuzendutako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduek osatua, honako helburu hauek lortze aldera:

- a) Gazteen premiak antzematea.
- b) Gazte izateagatik dagozkien eskubide guztiak egikaritzea.
- c) Gazteen autonomiari eta emantzipazioari bidea ematea.
- d) Gazteen bizi-kalitatea hobetzea.
- e) Haurren eta gazteen sustapena, eta haurrak, nerabeak eta gazteak sozialki eta kulturalki garatzea, bai norbanako gisa bai talde gisa.
- f) Gazteen partaidetza».

Beraz, gazteei zuzendutako jarduketak, zerbitzuak eta ekipamenduak dira, eta –gorago aipatu dugunez, 11. artikuluan adierazten denaren arabera– titulartasun publikokoak edo pribatukoak izan daitezke.

Izaera duala edukitzea garrantzitsua da; izan ere, aurreproiektuan ez dira zehazten jardueraren ezaugarri diren erantzukizun publikoa eta gizarte-partaidetza kasu batzuetan ekipamenduen eta zerbitzuen titulartasun pribatuarekin lotuko dituzten tresnak edo loturak.

Hortaz, txosten horri dagokionez, gure ustez egokia da aurreproiektuan ezartzea zer bide erabiliko den ekipamendu eta zerbitzu horiek eskuragarri jartzeko; izan ere, egokiena izango da sektore publikoko kontratuei buruzko araudiari, eta bereziki Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeari lotzea. Lege horren bitartez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egin da Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL). Lege horretan argi eta garbi adierazten dira bere erregulazioaren barnean sartuta dauden eta kanpoan geratzen diren negozioak, eta horri lotu beharko gatzazkio administrazio eskudunak aipatutako ekipamenduen eta zerbitzuen hornitzaileekin eta mailegatzzaileekin, hurrenez hurren, lotuko dituen harreman juridikoa ezartzeko.



Bestalde, ondasunen edo zerbitzuen kontratazio publikoari buruzko esanbidezko aipamenei dagokienez, 23. artikulua aipatu behar dugu. Artikulu horretan, gazteen zerbitzuak eta ekipamenduak Gazteriaren EAEko Sistemari sartu ahal izateko eduki behar duten izaera aitortzeko baldintzen haritik, aipatzen da erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu behar dela. Ez dago horretarako eragozpenik. Zerbitzuak eta ekipamenduak titulartasun publikokoak badira, jotzen da kontratazio hori Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren aseguru-polizen kontratazioan sartzen dela, eta *ex profeso* kontratazioa agente pribatuek egin beharko dute.

Geroago, gizarte-ekimenari buruzko 34. artikuluan honako hau adierazten da hitzez hitz:

«1.- EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, lankidetzak-formulak ezar ditzakete gizarte-ekimenarekin, beste batzuen baliabideekin gazteentzako jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak eskaintzeko.

2.- Gazteriaren arloan jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak eskaintzeko beharrezkoa denean EAEko administrazio publikoek gizarte-ekimenarekin itunak egitea, lege honetan, beronen garapen-arauetan eta sektore publikoko kontratuei buruzko legerian xedatutakoa bete beharko dute jarduerak, zerbitzuak eta ekipamendu horiek eskainiko dituzten pertsona fisiko edo juridiko publiko zein pribatuek.

3.- Lege honetan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, gazteriaren arloan eskumena duen sailak hala proposatuta, erregelamendu bidez finkatuko ditu aurreko apartatuetan aipatutako akordioak egiteko bete behar diren betekizunak eta baldintzak. Edonola ere, zerbitzuaren kalitatea eta eraginkortasuna izango dira irizpide nagusiak, sektore publikoko kontratuei buruzko legeriak arautzen duenari jarraikiz.

4.- Ituna egin aurretik aitortu behar ditu administrazio publikoak gazteentzako zerbitzuak eta ekipamendu publiko edo pribatuak; hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak esleituta dituen ikuskatze-lanak egin ahalko ditu».

Horri dagokionez, eta Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren Aholkularitza Juridikoak egindako txosteneko aipamenekin bat etorritik, esan behar dugu ez dela aipatzen lankidetzak modu horiek gauzatzeko erabiliko den modu juridikoa, negozio juridikoa. Hainbat modu izan daitezke eta SPKLren onspena izango



dute; izan ere, Lege horren berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarriak ahalbidetzen du gizarte-premiak asebetetzera bideratutako zerbitzu publikoak betetzeko kontratuz kanpoko tresnei buruzko Autonomia Erkidegoetako legeria. Dena den, legeria izan behar du, ez, ordea, beheragoko lerruneko araudia (argi dago ezin dela baldintzetarako aipatzen den erregelamendu-garapenera eraman).

Baina kontuan izan behar da ekipamenduak eskuratzea eta jarduerak eskaintzea hornidurei eta zerbitzuei buruzko kontratuen berezko xedeak direla, hurrenez hurren; horregatik, ahal bada, formula hori aukeratu beharko litzateke, eta horrela jasota utzi beharko litzateke Legean.

Gogoeta-ildo horri jarraikiz, «akordio» horiek kontratu publikoak izango dira, eta izaera hori dutenez, sektore publikoko kontratuen legearen eraginpean egon beharko dute (arestian aipatutako SPKLren eraginpean, alegia). Beharbada egokiagoa izango litzateke «kontratuak» esatea «akordioak» esan ordez, eta ez litzateke beharrezkoa izango dagokion legeriara jotzea.

Komenigarria da zuhurrak izatea akordio (kontratu) horiek ezartzeko aplikatu behar diren baldintzen eta betekizunen erregelamendu-ezarpenari dagokionez. Izan ere, erregelamenduaren bidez gara daitezkeen betekizunak bete behar diren premia zehatzak ezartzeko betekizunak eta Erregistroan inskribatzeko betekizunak soilik dira. Zuzena da «sektore publikoko kontratuen legeriak araututakoaren arabera» ezarriko direla, baina ez soilik kalitate- eta efikazia-irizpideei dagokienez, baizik eta legeria bere osotasunean errespetatu beharko dute, eta ez dute legeria hori garatuko duen erregelamendu-xedapenik egingo.

Hori horrela izanik, badirudi zaila dela dagokion administrazio publikoak «dagokion akordioa ezarri aurretik» onartzea zerbitzuak eta ekipamenduak. Asko jota kontratua formalizatu aurreko unean, eta kontratuaren esleipenaren ondorio logiko gisa onar litzake, eta horrela adierazi beharko litzateke. Helburu horretarako, kontratu bakoitzak beharrezkoak diren aginduak eduki beharko ditu bere eskaintza aurkezteko aukera duenak zerbitzuak eta ekipamenduak onartu ahal izateko eta Gazteentzako Zerbitzu eta Ekipamenduen Erregistro Orokorrean inskribatu ahal izateko betekizunak betetzeko, eta harekin batera Gazteriaren EAEko Sistemaren partaide izateko.

Azkenik, «gizarte-ekimenari» dagokionez, ulertzen da SPKLren azken xedapenetatik hamalagarrenean proposatzen den bezala definituko dela. Lege



horrek Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina –azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekreturen bitartez onartu dena– aldatzen du. Komenigarria izango litzateke horren inguruko zehaztapen bat egitea; izan ere, horrela bakarrik uler daiteke sektore publikoko kontratuen legeriako subjektu lizitatzaila edo kontratista gisa.

Hori guztia adierazi ondoren, esan dezakegu ez dagoela aurreproiektuaren testuari buruzko zehaztasun gehiago, mamiari dagokionez egokia dela ematen baitu, eta zerbitzuak eskaintzen dituztenekin eta ekipamenduak hornitzen dituztenekin dauden harreman juridiko horien moduari eta formalizazioari dagokionez aipatu diren oharrak soilik jaso beharko dira.

V.- ONDORIOAK.

Horrenbestez, lerrootan adierazitako zehaztapenak eta oharrak aintzat hartuko direlakoan, legearen aurreproiektuaren aldeko irizpena ematen du Batzordeak.